

ZALDUNITA

2020/02/23
8. urtea, 1.194. zenbakia
107,6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €

**Emakumeek,
urtean 6.000
euro gutxiago**

Agerraldia egin dute
ELAko Gipuzkoako zahar
egoitzetako grebalariek,
Tolosako Trianguloan // **5**



ITZEA URKZU ARSUAGA

NAGIRIK EZ MOZORRO EGUNETARAKO

Festa giroko bezpera izan zen atzokoa, eta festa egunen pare ospatu zituzten, haurrek bezala helduek, inauterietako danborradak // **6-7**



T
TOLOSA

Guztionak eta guztiontzat.
Bizi, gozatu eta errespetatu.
***Gora Tolosako
Inauteriak!!***

Plaza Zaharra Plaza, 6A,
20400 Tolosa, Gipuzkoa

[f](https://www.facebook.com/tolosaeus) [i](https://www.instagram.com/tolosaeus) [y](https://www.youtube.com/tolosaeus) [www.tolosaeus.eus](https://www.tolosaeus.com)

KOMIKIA GORKA SALABERRIA

**Itzea Urkizu Arsuaga**

Dena ikusten duen begia da Tolosako inauterietan. Festaren zirrikitu guztiak zeharkatzen ditu, eta haietan dauden bihurguneak herriari erakutsi, gero. Zenbait tolosarrek ihes egiten diote bere kamerari eta haren foko erraldoiari, baina gero gustura begiratzen diete, berak grabatutako irudiei. Hainbeste urteren ondoren, Pablo Dendaluzek (Tolosa, 1963) gozatu egiten du inauteriak lanean biziz, eta festa ondorenean irudiak berriro ikusiz, nahiz eta noizbait parranda betera itzultzeko asmoa duen. Musika du festaren zutabe, eta zaindu eta errespetatzeari jarri dio fokua, hori gabe, «Tolosako inauteriek jai baitute».

Zein dira gogoan dituzun inauterizaharrenak?

Lehendabiziko oroitzapenak umetakoak dira. Aita elkartean ikusi izana dut gogoan, txaranga zuzentzen; bera ez zen zuzendaria, baina elkarteko giroan edo nork hartzen du momentuko ardura. Orduz geroztik, inauteria asko aldatu da, gu aldatu garen bezala; baita inauteria ikusteko eta gozatzeko gure modua ere. Baina hala behar du: bizitza aldatzen den bezala, inauteriek ere aldaketa behar dute.

Azken urteotan kameraren atzean bizitzen dituzu inauteriak. Horrek ikuspegia aldarazi dizu?

Bai, festa kanpotik ikusten delako, beste modu batera, objektiboago; ausartuko naiz esatera, naturalago ikusten dela horrela. Lan egiteak baditu gauza onak eta, horietako bat da, osasuntsuagoa dela [ba-

«Ederra litzateke potentzial hau, urtean zehar, beste zenbait eremutara eramatea»

**PABLO DENDALUZE
INAUTERIZALEA**

Gainerakoak festan daudenean, bera lanean aritzen da, ingurukoek festa nola egiten duten grabatzen. Inauteriak lanean pasatzen dituzten horietako bat da, baina horrela ere gozatu egiten ditu.



Kamera bere hirugarren begia izaten da inauterietan. I. URKIZU ARSUAGA

reak]. Lanean ari zarela, bai, tar-teka goza dezakezu, baina ez dut astirik hartzen. Egunero pautabatzuk izaten ditut, eta festa oso ondo ezagutzen dut barrutik nahiz kanpotik. Horregatik, uste dut interesgarria dela lan egitearen ikuspuntutik inauteriak bizitzea.

Oraindik ere ba al da, atentzioa ematen dizun zerbait?

Noski baietz. Inauteria urtero desberdina da, eguraldiak eragin handia du, jendea horren arabera mugitzen da,... Urtero gauza politak ikusteko aukera izaten da. Freskotasun horrek ematen dio, inauteriari, haien zain berriro ego-

teko grina. Eta baita salto egiteko, dantzan aritzeko eta hunkitzekoa ere.

Zein da barregarriena suertatu zaizun ideia?

Guk geuk atera izan ditugu ideia onak. Barriolarrekin urtetan atera izan naiz, eta une eta argazki oso politak ditut gogoan. Behin linea erotiko bat atera genuen, grabaketa eta guzti. Jendea metro karratuko kabina batean sartzen genuen, gauza lizunak esaten genizkien, eta sekulako aurpegiak jartzen zituzten.

Hunkitzeko ere badira inauteriak.

Bai. Bandaren kontzertuaren hasiera eta Dianaren hasiera hunkigarriak dira; musikarekin lotutako edozein une. Eta, askotan, hunkigarritasuna ere badatorkizu, egotira konkretu batean pertsona bat falta dela konturatzen zarelako.

Zer sentitzen du batek, inauterietan norbait beraz**mozorrotu dela ikusten duenean?**

[Barreak] Gertatu izan zait. Hasieran, ez dut ukatuko lotsa pixka bat sentitu ez nuenik. Baina irakurketa baikorra ere egiten dut: mozorrotu denerako, zer baitetarako balio izan du presentzia horrek.

Zer ikasi duzu kamera atzetik?

Inauterietan daukagun borondatea, elkarrenganako errespetua, lanerako joera,... Potentzial hori, urtean zehar, beste zenbait eremutara eramango bagenu, ederra litzateke. Hortaz jabetzeko aukera eman dit, inauteriak kamera baten atzetik ikusteak. Eta baita beste zenbait ondorio ateratzeko ere: zein beharrezkoak diren, adibidez.

Honetara ezkerro, imajinatzen al dituzu Tolosako inauteriak, kamerarik gabe?

Harrokeriarik gabe diot, nik egiten dudana dirutan kobratu beharko banu, segur aski ez nukela egingo. Kasu honetan, nire lana ez dut ekonomikoki baloratzen, eta nire lanak badu militantzia kutsu hori. Noski, soldatatzeko ateratzen dut, tontoa ere ez naiz. 2014an parentesi bat egin nuen, eta ez dut nire bizitza guztia kameraren atzean ikusten.

Zeren falta sumatuko zenuke?

Ezeren faltarik ez. Ni festan murgiltzen naizenean, parranda zalea naiz, dantza egitea eta algaraka ibiltzea gustatzen zait.

Inauterien ondoren, oporrak hartzen dituzu?

Ez. Inauteri osteko astebururako edizioa ia-ia bukatuta eduki behar izaten dut, beraz, inauteriak bukatu ondorengo lau egun horiek zorramena izaten dira niretzat.

Mozorrotzen diren inauterizaleentzat egun handiak izango dira datozen hauek, baina baita txaranga zaleentzat ere. Zaldunita egunean, esaterako, badira galdu ezin diren ekitaldi batzuk.

Txarangan ere, lagun artean

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosar inauterizaleei galdetuz gero, askok inauterietako egunak Zaldunitarekin batera hasten direla esango lukete, orduan hasten delako mozo-roen festa handia. Egun horretatik aurrera, beste festa handi bat ere gehitzen zaio, txarangena. Atzo aipatu moduan, 30 txaranga inguru aritzen dira jotzen inauterietan, Tolosan. Bada, gaur, horietatik herenak ariko dira kaleak kalejira, habanera eta jota doinuez alaitzen.

Alcoyano, Kabila, Txapel Haundi, Urdina Txiki, Iurre, Aiz Orratz-Veleta, Arco Iris eta Sukalde elkarreetako txarangen txanda izango da gaur. 10:00etan irtengo dira, bakoitza bere elkartetik. 11:00etan, sokamuturra izango da Plaza Berrian; Kabila txarangak alaituko du ekitaldia. Goizean zehar, Alde Zaharreko kale eta tabernatan, txarangak entzuteko aukera izango da.

Bazkal ondoren, 16:00ak aldera, kalejirari ekingo diote Alcoyano, Aiz Orratz-Veleta eta Urdina Txiki elkarteetako txarangek. Ohiturak mantenduz, Plaza Zaharretik abiatuko dira zezen plazaraino. Bertan, zezen-festa izango da, eta hiru txaranga hauez gain, Udaltxistulari Banda ere ariko da ikus-kizuna alaitzen. Behin zezenak amaituta, kalejira egingo dute, San Frantzisko pasealekutik, Berdura Plazara heldu arte. Han, dantzaldia izango da, aipatutako hiru txarangekin.

Elkarreetakoak, ordea, ez dira goizez nahiz arratsaldez aterako diren txaranga bakarrak izango. Jada tradizio bihurtu diren zenbait ekitaldi izaten dira Zaldunita egunean. Batetik, Bonberenea txaranga gaztea ateratzen da kalea. Bestetik, San Estebango lagun kuadrilla bati esker, jendez lepo betetzen da Korreo kalea, Lainoa eta Elurra tabernen atarian. Iluntzeko bederatziak aldera, Rafa Mendibil tronpeta jotzailea balkoi batera igotzen da, eta *Paquito el Chocolatero* abestia jotzen dute, bertan biltzen diren tolosarren gozamenerako. Gauez ere, bi txaranga ariko dira Alde Zaharra hankaz gora jarri nahian: Klean eta Oria.



Gaur izango da Bonberenea txarangaren egun handia; bihar, berriz, gauez irtengo dira. Goian, 2012ko irudia. ATARIA

SUAK BIZIRIK JARRAIDEZAN

Tolosako nahiz eskualdeko 20 gazte inguruk osatzen dute Bonberenea txaranga. Tolosako gazte txeko kideen esanetan, ordea, «bazkaltzeko jende gehiago» biltzen dira. Ostegun Gizenean ere atera ziren kalera, baina, beraien esanetan, «orain datoz egun garrantzitsuenak». Gaur egunez aterako dira; bihar, berriz, gauez. «Kaleak alaitzeaz gain, gure presentzia bermatzea da helburu nagusia. Egun guztiak, gainera, oso desberdinak dira, batez ere, giroari dagokionez».

Bonberenea txaranga kideak, jakitun dira Tolosako inauterietan jotzea oso berezia dela. «Inauterien ezaugarrietako bat dira txarangak, eta, horren parte garenez, festa beste ikuspegi batetik bizitzeko eta lagun giroaz gozatzeko aukera izaten dugu. Gainera, aspaldi ikusi ez duzun jendearekin elkartzeko aukera ere ematen du. Horregatik, jendea animatzen dugu txarangen parte hartzera. Jotzeko aukera izanez gero, ez dezatela pasatzen utzi».

Urtetik urtera, esfortzu handiagoa eskatzen du txaranga ateratzeko. Hori dela eta, orain gehiago entseatzen dute Bonbereneakoek. Ostegun Gizenean nahiz gaur, inauterietako errepertorioko kantak jotzen ariko dira. Bihar gaue-

an, berriz, abesti horiez gain, beste estilo batzuetako abestiak eta bertsoak ere tartekatuko dituzte. «Zaldunitan, 10:30ean, Bonberenean elkartu ohi gara, hamaiketako egiteko. Barrena bete ondoren, 12:00ak aldera ateratzen gara kaleak alaitzera. Bazkaldu ondoren ere, buelta bat ematen dugu Alde Zaharrean. Astelenitan, berriz, Bonberenean afaldu ondoren, gaurdian aterako gara, Plaza Zaharretik».

Bonberenearen kasuan, txarangen emakumeek parte har dezaten bultzatzen dute, eta horren erakusle gisa garbia da txaranga bera, bertan badirelako emakumezko musikariak. «Pixkana, ikusten da txarangen emakumezko gehiago ateratzen direla, eta horrek asko pozten gaitu. Txarangen sartzeko aukera izanez gero, aprobetxatu egin behar da;

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Garbiketa lanak. Tolosan esperientzia duen pertsona bat behar dugu, Lizartzako enpresa bat garbitzeko. Lan jarduna astearte eta ostegun goizetan egin beharko luke langileak. Kotxea izatea ezinbesteko baldintza da, baita esperientzia izatea ere. Interesa dutenek dei dezatela 943 67 06 26 telefono zenbakira.

Rafa Mendibilek 26. aldiz joko du, gaur, 'Paquito el Chocolatero, Korreo kaleko balkoitik

hori da behintzat, emakumeen presentzia handiagoa izateko gertatu beharko lukeena. Ez da lotsarik izan behar, nahiz eta bakarra izan, oso ondo pasatu daitekeelako beste partaide baten moduan. Ea hemendik gutxira txarangen ateratzen den emakume kopuru hori gizonezkoena bezain bestekoa izaten den».

ARRAUNEAN, TRAINERURIK GABE

Bonberenea txaranga entzuteaz gain, badira Zaldunita egunean

ikusi eta entzun beharreko zenbait emanaldi, nahiz eta egitarau ofizialean ez agertu. Izan ere, 1995az geroztik, Zaldunita eguneko figura izatera igaro da Rafa Mendibil tronpeta jotzaile tolosarra.

Ia hiru hamarkada daramatza, 21:00etan hasten den ekitaldiaren barruan, Korreo kaleko balkoi batetik, *Paquito el Chocolatero* kantuz agertzen da. Iaz 25. urteurrena bete zuen, eta aurrean bertan izango da, jarraitzaile sutsuenen eskariari erantzunez; 26. aldiz izango du.

Parodia bat egin nahian, auzoko lagunekin txaranga bat osatu zuten aurrena. «Parodia moduko bat zen, betiere, umoreari tiraka», dio berak. «Urtetik urtera, familia handitzen joan zen, eta beti leku berean amaitzen genuen. Amaieran, *Paquito el Chocolatero* jotzeko eskatzen zidaten. Lehen urteetan, aulki baten gainean jartzen nintzen, eta auzotarrek traineru erraldoi bat irudikatzen zuten, lurrian etzanda jarrita. Hirugarren urtetik aurrera, balkoira igo izan naiz».

Sekulako jendetza biltzen da hirtzorduan, eta bera ere jabetzen da horretaz. «Kontua ezerezetik sortu zen, baina urtetik urtera gero eta jende gehiago etortzen da. Pentsa, goiztiarrenak ordu bete lehenago joaten dira, tokia hartzera».

Berez, iazkoa zuen azken aldia, edo behintzat hala iragri zuen berak. «*Paquitoren* amaitu behar duenean amaituko da. Bitartean, hemen jarraituko dut, noski, baina asko poztuko nintzateke, geroa erreleboa egongo dela jakinez gero».





Haurren artean hartza ibili zen, artzainak ezin gobernatuta, aurrean harrapatzen zuena jaso eta lurrera botatzen. I. SAIZAR



Musika Eskolako ikasle banda ere Tolosako kaleetan zehar kalejiran ibili zen. I. S.

Dantzari txikien oinak dantzan

Tolosako kaleetan barrena ibili ziren, atzo goizean zehar, Tolosaldeko dantzariak; plazetan geldialdiak egin, pare bat pieza dantzatu, eta kalejiran Euskal Herria plazan bildu ziren azken dantzak eskaintzeko

Irati Saizar Artola

Kalejiran eta dantzan pasatu zuten, Zaldunita bezperako goizaren zatirik zabalena, eskualdeko dantzariak. Gaztetxo asko animatu ziren hankak dantzan jartzera, Udaberri dantza taldeak antolatzen duen hitzorduan.

Trianguloa izan zuten lehen elkargune, 11:30ean. Hortik au-

rrera, bi talde handitan banatuta, Tolosako kaleak alaitzen aritu ziren, plazaz plaza geldialdiak eginda, dantza batzuk eskainiz. Eguerdian, bi taldeek bat egin zuten Trianguloan, ondoren Euskal Herria plazara elkarrekin joateko, eta han, azken emanaldia eskaini ostean, galdutako indarrak hamaiketakoarekin berreskuratu zituzten.



Lagundu iezaiguzu Ataria proiektua indartzen

Egin zaitez

Atarikide

Jai erraldoiaren iragarle izan dira

Tolosako Erraldoi eta Buruhandien konpartsak herriko kaleak hartu zituen atzo goizean eta lilura sortu zuen bertaratutako inauterizaleen artean



Jon Miranda

Gernikako Arbola pasealekuan egin zuten hitzordua Tolosako erraldoiek, eta 11:00etan abiatu ziren kalejiran, Tolosako Dultzaineroen laguntzaz. Alde Zaharreko kaleak zeharkatu zituzten, eta ohiturazko dantzak ere eskaini zituzten, besteak beste, Plaza Zaharrean eta Plaza Berrian. Txalo jo zieten bertaratutako umeek eta haien gurasoek. Erraldoiekin batera ibili ziren buruhandiak, kozkortutako gaztetxoek atzetik korrika.

Eguraldi bikaina izan zuten lagun, ibilbide osoan, eta eguerdirako Ferialekura etxeratu ziren, berriro, erraldoi eta buruhandiak. Inauterietako gainerako egunak han emango dituzte.



Tolosako Erraldoi eta Buruhandien konpartsak Tolosako Alde Zaharreko kaleak zeharkatu zituen atzo. J.M.



Tolosako Trianguloan egin zuten agerraldia, atzo, grebalariek. J.M.

Soldata arrakala salatu dute erresidentzietako grebalariek

Zahar egoitzetako emakumeen soldata arrakala %30ekoa dela jakinarazi dute, urtean 6.000 eurokoa; 222. greba eguna zuten atzokoa eta borrokan segiko dutela jakinarazi dute

J.M.

Gipuzkoako Foru Aldundiak azpikontratutako sektore maskulinizatuarekin alderatuz, zahar egoitzetako emakumeek jasaten duten arrakala %30ekoa dela jakinarazi zuten, atzo, zahar egoitzetako langileek, gizon eta emakumeen arteko soldata berdintasunaren aldeko egunean. «Urtean 6.000 euro gutxiago emakumeak izateagatik eta zaintza lanak egiteagatik. Urtean hiru hilabete eta erdi baino gehiagoan dohainik egiten dugula lan». Salatu dutenez, arrakala ez da bakarrik soldatetan islatzen, emakumeek pairatzen baitituzte behin-behineko-tasun tasa handienak, eta baita jardunaldi prekarioenak ere.

ELAko Gipuzkoako zahar egoitzetako grebalariek egindako age-

rraldian azaldu zutenenez, egungo sistemak eta lan merkatuak emakumeak «bigarren mailako langile gisa» erabiltzen ditu. «Egiten ditugun lanak gutxietsi egiten ditu, bizitza sostengatzeko ezinbestekoak izan arren». Horregatik daude langileak greban.


Gatazka honi aldundiak amaiera eman behar diola irizten diote langileek eta, aipatu zuten, ez dutela onartuko Markel Olanok «arrakala ezabatuz», sistema jasangarria ez dela esatea. Emakundek egunotan aipatu du soldata arrakalak emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna «betikotzen» duela. Grebalarien ustez, aldundiak berdintasunaren alde egiteko aukera paregabea dauka martxoaren 8an, «eta bide batez, 222 eguneko grebari konponbidea ematekoa ere bai».



Mozorro hoberenaren bila



Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
Jakuzidun logela eta gosariekin
Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia



Lau pertsonarentzako otordu bat
Zabala sagardotegian
Goiburu auzoa, Aduna
• 943 69 07 74 • rzabala.com
ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria



Bi lagunentzako bi afari
Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
• 943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atarikideen saria

Danborrak eta hankak, arin

Haurren danbor hotsek hartu zuten Tolosako larunbat arratsaldea, eta bikain astindu zituzten makilak; behin ilunduta, helduen danborradaren txanda izan zen

Eneritz Maiz Etxarri

Mozorroen festari deika hasten dira, danbor hotsez, tolosarrak. Larunbat arratsaldeko kolorea eta erritmoa, Aiz Orratz elkarteak antolatzen duen haur danborradak jartzen du, eta atzokoan ere ez zuten hutsik egin. Irribarretsu, serio, urduri, jolaserako gogoz edo aspertuta, guztiak pasatu ziren San Frantzisko pasealekuko pasarelatik.

Eguzki berotan, kosakek dantza ederki egin zuten, eta bi alboak jendez beteta izan zituzten. Familia eta lagunuen begiradapean egin zuten Triangulorainoko bidea. Bertan hainbat abesti jo ostean, Alde Zaharrerako bidea hartu zuten.

Danbor hots batzuk bukatzerako, Plaza Zaharra helduen danborradaren zain zen. Azken bi urteetan egin moduan, Plaza Zaharrean eman zioten hasiera. Plaza bete danbor zen, eta lehen notak jotzearekin batera astindu zituzten makilak.



San Frantzisko pasealekuan kosakek bilbide guztian zehar egin zuten dantza. ITZEA URKIZU



Azken urteetan Aiz Orratz elkarteak antolatzen duen haurren danborradak eguraldi ona ekarri du Tolosara; eguzkiak atzetik ederki goxatu zuen ibilbidea. J. URKIZU



Otsailak 23, 24 eta 25 IRRATIA ZUZENEAN

11:00etan hasita
zuzeneko bereziak
San Frantzisko ondotik



107.6 fm
www.ataria.eus





Trianguloa plazan hainbat abesti eta dantza eskaini zituzten, buelta guztian begira zeudenen gozamenerako. E. MAIZ/I. URKIZU



Tolosako Plaza Zaharra, beste behin, jendez bete zen helduen danborradaz gozatzeko; aurtengoan, Berazubiko danborradak 25. urteurrena ospatu du. EMAIZ

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenara 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



IGANDEA, 2020KO OTSAILAK 23
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



IGANDEA 23

AGENDA

TOLOSAKO INAUTERIAK

EGITARAU OFIZIALA.

08:00. Diana, Tolosako udal musika bandarekin. **08:45.** Udal txistulari bandak ohiko ibilbidea eginez, Inauterietako Zortzikoa joko du. **10:00.** Txarangen irteera. **11:00.** Plaza Berrian sokamuturra Kabila txarangak alaituta. **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera. **15:45.** Udal txistulari bandak Idiarena pieza joz egingo du ohiko ibilbidea. **16:00.** Kalejira Alcoyano, Veleta-Aiz-Orratz eta Urdiña Txiki txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen plazara. **16:30.** Zezenak Zezen plazan, txarangak eta udal txistulari banda ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren. Kalejira. **19:00.** Txarangen dantzaldia izango da, Berdura plazan Alcoyano, Veleta-Aiz-Orratz eta Urdiña Txiki txarangekin. **23:30-01:30.** Kalean eta Oriako txarangak kalez kale ibiliko dira.

TXOSNAGUNEA

19:30. Erromeria Laket musika taldearekin.

22:30. Kontzertuak: Bake faltsua eta DJ Jotatxo.

INAUTERIAK ESKUALDEAN

Abaltzisketa. Txantxoak.

08:00. Baserrietatik barrena hasiko dute ibilbidea. **11:00-11:30.** Abaltzisketako herrigunera iritsiko dira. Udaletxean eta etxeetan dantzatu eta gero, baserrietako bideari ekingio diote.

Amezketeta. Talai dantzariak.

08:00. Udaletxe azpian elkartu, eta Ugartera joango dira Talai dantzariak. Gero, Zubillaga auzora joango dira eta, azkenik, Amezketako kaleak pasako dituzte.

Alegia. Zahagi ardo plazan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Amasa-Villabona. Jojo Rabbit Oscar sarietan izendapenak jasotako filma proiektatuko dute, Gurea zinemaren..

+ FARMAZIAK

Villabona. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz. Amartzauzoa, 9. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro egonkor, eguzkitsua eta epela. Goiza, berriz ere, hotza izango da, baina, hego haizeari esker, eguneko erdiko orduetan termometroek berriz ere gora egingo dute, eta 19-21 gradu bitartean joko dute goia eguerdian. Zeruian, berriz ere, tarteka, goihodei batzuk agertuko dira, baina hala ere, eguzkia jaun eta jabe izango da. Giro argia nagusituko da.

Bihar. Giro epela. Tenperatura baxuenak hotzak izan arren, maximoek beste koska bat gora egingo dute, hego-mendebaldeko haizeari esker: 21-23 gradu. Zeruian, goizean apenas ikusiko dugun hodeirik, baina, arratsaldea aurrera joan ahala, zeruan hodei gehiago agertuko da, eguna amaitzerako zerua estali samarrik geratuz. Hala ere, ez da euririk egiterik espero.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



KLASIKO BAT BEZPERAN

Haurrena da larunbat goiza, Tolosako inauterietan. Dantzariak, ikasleen banda, erraldoiak eta buruhandiak. Eta txu-txu trena. Azken urteotan, Aiz Orratz-Veleta elkarteak goizean ere ateratzen du ibilgailua, gaztetxoenen gozamenarako eta, arratsaldean, tren bera arduratzen da, moztorro lehiaketako irabazleak danborradan eramateaz. JON MIRANDA

XXI. ELKARTASUN SAGAROTEGIA

OSTEGUN GIZEN: GAUA
OSTIRAL MEHE: GAUA
LARUNBAT: GAUA
ZALDUNITA: EGUERDIA/GAUA
ASTELEHENITA: EGUERDIA/GAUA
ASTEARTITA: GAUA

Euskal preso eta iheslariak etxera

LUIS IRURETAGOENA · ANDONI OTEGI · GARIKOITZ ETXEBERRIA
ANA BELEN EGUES · OSKAR ZELARAIN · ANDONI GOIKOETXEA
KARLOS BESANCE · MANEX CASTRO · INIGO GURIDI · EMILIO SALABERRIA · AITOR AGUIRREARRAENA



DIANA ONDOREN ZATOZ GURERA GOSALTZERA